



MOTA PROFESIONALEKO ZIURTAGIRIAREN POLITIKA

Izenpe 2025

Dokumentu hau IZENPErena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke dokumentu hau

BERTSIOA	ALDAKETAK
1.1	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 1.1. Definizioa: <i>Erakunde publikoaren ziurtagiri profesionalak-pertsonalak</i> goitzenarekin egitea. ➤ 1.2. Euskarria eta segurtasun-maila. Ziurtagiri profesionalak USB bidezko txartel-/token-euskarrian eta softwarean egitea. ➤ 1.3. Erabilera-eremua: ziurtagiri profesionalen erabilera-eremua zuzendu da. ➤ 1.4. Identifikazio ziurtatua: OID berri bat esleitu zaie USB bidezko txartel-/token-euskarrian eta softwarean egindako <i>ziurtagiri profesionali</i>. ➤ 2.1. Nortasuna egiaztatzea: erkidegoz kanpoko herritarrari eskatutako identifikazio-agiriak eguneratzea: AIZ eta pasaporteak. ➤ 3. Zenbatekoa: askotariko ordainketa-modalitateak aurreikustea, proiektu espezifikoetan oinarrituta. <p>Ezabatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ 1.1 atala. 1.0 bertsioak mota askotako ziurtagiriak zehazten zituen, harpidetza-erakundea sektore publikokoa edo pribatukoa zen. 1.1 bertsioak bereizketa hori ezabatu du. ➤ 1.2 atala. Euskarriak: ziurtagiriak HSM euskarrian eta nabigatzailean egiteko aurreikuspena ezabatu da. ➤ 1.5 atala: Xedapen orokorrak: DPCn araututako alderditzat hartu dira.
1.2	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 1.2 atala: HSM euskarrian egiteko aurreikuspena ezabatu da.
1.3	<ul style="list-style-type: none"> – Ordez kariaren politikaren 1.3 bertsioak ziurtagiri hori HSM euskarrian egitea arautu du. – 2. epigrafea, ziurtagiriaren bizi-zikloaren deskribapena eguneratu da.
1.4	<ul style="list-style-type: none"> – 2020 oinarri berrien profilak gehitu dira

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.5	2022/03/21	<ul style="list-style-type: none"> – 1.2 epigrafea_Oinarrizko 2007 CAren hierarkia: politika-identifikatzailea eguneratzea. – 2. epigrafea: bizi-zikloaren idazketa eguneratzea, eta eskatutako dokumentazioa eguneratzea. – 2.6 epigrafea: baliogabetze-prozedura eguneratuko da. – Epigrafe hauek sarutko dira: 5 (datuen pribatutasuna eta babesa), 6 (gatazkak ebazteko mekanismoa) eta 7 (aldaketa kudeatzeko prozesua eguneratzea).

1.6	2022/09/01	<p>Epigrafea,</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1.1. Araudi aplikagarria eguneratzea. - 1.2. Oinarrizko 2007 CAren hierarkia: politika-identifikatzailea eguneratzea. Sinadura-mota goitizenetik aurreratura aldatzeko OID - 2.2.2. Eskatzailearen nortasuna egiaztatzea. <ul style="list-style-type: none"> - Identifikatzeko behar den dokumentazioa eguneratzea. - Indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidez egindako egiaztapen-prozedura eguneratzea. - 2.6. Ziurtagiria baliogabetzea. <ul style="list-style-type: none"> - Interes legitimoa duen hirugarren bat sartu da baliogabetzeko eskatzaile posible gisa. - izenpe@izenpe.eus helbidera bidalita egindako ziurtagiri bat baliogabetzeko prozedura eguneratu da. - Online baliogabetzeko aplikazioaren bidez baliogabetzea ere sartu da. - 4. Informazioaren segurtasunari buruzko erreferentziak sartzea. - 5 eta 6. Epigrafeen ordena aldatzea. - Dokumentua hizkuntza inklusiboaren ikuspegitik eguneratu da, generoari dagokionez.
1.7	2022/10/21	<p>Epigrafea,</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1,2: Oinarrizko 2007 CAren hierarkia (CN=Izenpe.com): txip kriptografikoan indarrean dauden OIdetan politika-identifikatzailearen balioa QCP-n-ra eguneratu da.
1.8	2023/11/06	<p>1.1 Definizioa eguneratzea 1.2 Ziurtagiriaren iraupena eguneratzea 1.2 Indarrean ez dauden profilak ezabatzea 2.2.2 Egiaztapen-prozesua ziurtagiriarekin eguneratzea 2.4 Emititzeko eta entregatzeko prozedura eguneratzea 2.6 Baliogabetze-prozedura eguneratzea</p>
1.9	2024/08/08	<p>1.1 Araudia eguneratzea 1.2 Taulak eguneratzea 2.2: Bideo bidezko identifikazioa sartzea</p>
2.0	2025/01/07	<p>Epigrafe hauen idazketa eguneratu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1.3 Erabilera-eremua. - 2. Ziurtagiriaren bizi-zikloa.



AURKIBIDEA

1	BALIABIDEEN DESKRIBAPENA.....	5
1.1	DEFINIZIOA.....	5
1.2	EUSKARRIA ETA SEGURTASUN-MAILA.....	7
1.2.1	OINARRIZKO 2007 CAREN HIERARKIA: (CN=IZENPE.COM).....	7
1.3	ERABILERA-EREMUA.....	8
2	ZIURTAGIRIAREN BIZI-ZIKLOA.....	8
2.1	ESKAERA.....	8
2.2	GAKO-EDUKITZAILEAREN IDENTITATEA EGIAZTATZEA.....	8
2.2.1	ZIURTAGIRI EZ-KUALIFIKATUA.....	8
2.2.2	ZIURTAGIRI KUALIFIKATUA.....	8
2.3	ESKATZAILEAREN ERAKUNDEA ETA AHALMENAK EGIAZTATZEA.....	9
2.4	EMATEKOETA ENTREGATZEKO PROZEDURA.....	9
2.5	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA.....	10
2.6	ZIURTAGIRIA BALIOGABETZEA.....	10
2.7	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA.....	10
3	ZENBATEKOA.....	11
4	ZIURTAGIRIEN PROFILAK.....	11
5	INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA.....	11
6	ALDAKETAREN KUDEAKETA.....	11
7	GATAZKAK EBAZTEKO MEKANISMOAK.....	11



Dokumentu honetan jasotzen da *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificado y Servicios, Izenpe, S.A.k* (aurrerantzean, Izenpe) emandako ziurtagiri *profesionalak* identifikatzeko eta sinatzeko baliabideei dagokien *politika*.

Helburua da *Izenperen Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* modu orokorrean definitutakoa zehaztea eta osatzea www.izenpe.eus/dpc

1 BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

1.1 Definizioa

Emate-eremuaren arabera, Izenpe-k identifikazio- eta sinadura-baliabideak ematen ditu,

– *Profesionala-hodeiko enplegatu publikoa:*

Identifikaziorako eta sinadurarako baliabidea; hauek osatzen dute:

- Erreferentzia-zenbaki bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin bat datorrena.
- Pasahitz bat.
- Behin bakarrik erabiltzeko kode bat, SMS bidez edo posta elektronikoz bidaliko dena.
- Izenpe-ren biltegi zentralizatu batean emandako ziurtagiri kualifikatua, sinadura-egintzetarako baliagarria izango dena.

Biltegian egindako ziurtagiriak profil hauetako bat izango du:

– *Profesionala-enplegatu publikoa,*

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen esparruan emana.

Pertsona fisikoaren ziurtagiri kualifikatu gisa konfiguratzen da, *arau hauen esparruan: 910/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, uztailaren 23koa, barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa, zeinaren bidez indargabetzen baita 1999/93/CE Zuzentaraua (aurrerantzean, eIDAS); eta 6/2020 Legea, azaroaren 11koa, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen zenbait alderdi arautzekoa.*

Ziurtagiri horrek administrazio publiko jardulea harpidedun gisa identifikatzen du, baita administrazio horretan kargu edo postu bat betetzen duen pertsona ere, gako-edukitzaile gisa.

Administrazio harpidedunak berari dagozkion gako-edukitzaileak identifikatzeko lanak egin ahal izango ditu.

Eremu horretan, Izenpe-k goitizena duten ziurtagiriak egiten ditu, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren Ziurtagiri elektronikoen profilen dokumentuan zehaztutakoaren arabera.

– *Profesionala-Korporatiboa,*

Sektore publiko zein pribatuko erakunde baten esparruan emana.

Motak,

➤ *Profesionala-Korporatibo kualifikatua,*

Sinadura elektronikoko ziurtagiri gisa konfiguratuta dago, eta *eIDAS*en arabera kualifikatutzat hartzen da.



Erakunde jardulea identifikatzen du ziurtagiriaren harpidedun gisa, eta bertan kargu edo postu bat betetzen duen pertsona, gakoan edukitzaile gisa, gakoan zaintzaren arduradun gisa.

➤ Profesionala-Korporatibo ez-kualifikatua,

Ziurtapen-maila ertainarekin identifikatzen du erakunde jardulea ziurtagiriaren harpidedun gisa, baita bertan kargu edo postu bat betetzen duen pertsona ere, gakoan jabe den aldetik.

Ez da kualifikatutzat hartzen eIDAS sistemaren arabera.

Honako hauek izango dira:

- **Harpideduna:** Administrazio Publikoa edo ziurtagirian identifikatutako erakundea.
- **Sinatzailea:** pertsona fisiko bat da, eta berak bakarrik erabil ditzake bere titulartasuneko ziurtagiriari lotutako sinadura sortzeko datuak.
- **Eskatzailea:** ziurtagiria erakunde baten izenean (Administrazio Publikoa eta/edo erakundea) eskatzen duen pertsona.

Politika honetan sartutako ziurtagiri guztiek 4 edo 3 urteko iraupena dute.



1.2 Euskarria eta segurtasun-maila

Ziurtagiri *profesionala* hainbat euskarritan ematen da, eta zehaztutako aseguramendu-mailen arabera.

1.2.1 Oinarrizko 2007 Caren hierarkia: (CN=Izenpe.com)

PROFESIONALA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politika-identifik atzailea	OID politika	eIDAS identifikazio-maila		Sinadura-mota eIDAS
Enplegatu publikoa	Txip kriptografikoa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.1	Handia		Aurreratua
	Izenpe-ren software-educiontzia	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.2	Funtsezkoa		Aurreratua
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.3	Altua (txartel birtualarekin)	Funtsezkoa (Giltzarekin)	Aurreratu a
Identifikazio profesionalak o zenbakia duen enplegatu publikoa	Txip kriptografikoa	QCP-n	Sinadura 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.1	Handia		Aurreratua
		NCP+	Autentifikazioa 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.2	Handia		e/a
		e/a	Zifratze 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.3	Handia		e/a
		QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.13.2	substantziala		Aurreratua
Korporatibo kualifikatua	Txip kriptografikoa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.1	Handia		Aurreratua
	Izenpe-ren software-educiontzia	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.2	Substantziala		Aurreratua
	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.3	Altua (txartel birtualarekin)	Funtsezkoa (Giltzarekin)	Aurreratu a
Korporatibo ez-kualifikatua	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1	e/a (ez-kualifikatua)		Aurreratua



1.3 Erabilera-eremua

Erabilera onartzen duten hirugarrenek eskaintzen dituzten zerbitzuetan erabiliko du sinatzaileak ziurtagiria, *Zehaztapen eta Baldintzen* dokumentuan eta Ziurtapen Praktiken Deklarazioan www.izenpe.eus argitaratutako baldintza eta mugekin.

2 ZIURTAGIRIAREN BIZI-ZIKLOA

2.1 Eskaera

www.izenpe.eus helbidean sartuz, eskatzaileak ziurtagiria eskatzeko formularioa beteko du, eta ziurtagiria erabiltzeko *zehaztapen eta baldintzen* dokumentua onartuko du.

2.2 Gako-edukitzailearen identitatea egiaztatzea.

2.2.1 Ziurtagiri ez-kualifikatua.

Ziurtagiri ez-kualifikatuari dagokionez, ez da beharrezkoa izango eskatzailea aurrez aurre edo modu baliokidean egiaztatzea, baina eskaera sinatu bat beharko da.

2.2.2 Ziurtagiri kualifikatua.

Izenpe-k eskatzailearen nortasuna egiaztatuko du,

– Aurrez aurre

Eskatzailea www.izenpe.eus-era sartuz joango da, eta indarrean dagoen dokumentazio hau aurkeztuko zaio erregistro-entitateari:

- Espainiako nazionalitatea duen herritarra: NANA, pasaportea edo gidabaimena.
- Europar Batasuneko herritarra: pasaportea edo jatorri-herrialdeko nortasun-agiria, eta, horrekin batera, atzeritarraren identifikazio-txartela, Batasuneko Herritarren Erregistroak emandako ziurtagiria, edo AIZa eman izanaren agiri ofiziala.
- Erkidegoz kanpoko herritarra: pasaportea, eta, harekin batera, atzeritarraren identifikazio-txartela edo AIZa eman izanaren agiri ofiziala.

Izenpe Erregistro Entitateak edo Izenperekin dagokion lege-tresna izenpetzen duten Entitate Erabiltzaileak izango dira.

– Emate-eskaera notario bidez sina dadin legitimatzea.

Gako-edukitzailea,

- Bidalketa eskatzeko formularioa bete eta sinatuko du, eta *erabiltzeko baldintzak* onartuko. Notarioak eskaerako sinadura legitimatuko du.
- Eskatutako agiriak helbide honetara bidali behar dira: **Izenpe, S.A.- Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 1. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz.**

– Edo indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidez, EU TSL (Trusted Service List) zerrendan dagoen CA batek emandakoa. Ziurtagiri horretan egiaztatu ahal izango da azken identifikazio presentzialaren data ez dela 5 urtetik gorakoa.



Horretarako, eskatzailea www.izenpe.eus helbidean sartuko da, eta emate-eskaeraren formularioa sinatuko du, adierazitakoaren arabera emandako ziurtagiri bat erabiliz.

2.3 Eskatzailearen erakundea eta ahalmenak egiaztatzea.

Izenpe-k erakundearen eraketa eta indarraldia eta eskatzailearen ahalmenak egiaztatuko ditu, alderdi horiek egiaztatzen dituzten agirien bidez edo erregistroko egiaztapen egokien bidez.

2.4 Emateko eta entregatzeko prozedura

Izenpe-k ziurtagiria egin eta emango du,

➤ Izenpe-ren edukiontzia

Gako-edukitzailea,

1. Eskaera-formularioan adierazitako helbide elektronikoa jasoko dituzu jarraitu beharreko jarraibideak, esteka pertsonalizatu batekin batera.
2. CUR kodea izan beharko du. Kode hori erregistro-entitatean emango zaio, edo, eskaera elektronikoki sinatuz gero, posta arruntez bidaliko zaio.
3. Izenpe edukiontzia aplikazioa instalatuko du bere ekipan, eta estekara sartu eta CURa emango du
4. Eskaera-datuak baliozkoak dira, instalatutako edukiontzia aplikazioa irekitzeko baimena eskatu da eta Izenpek ziurtagiria bidali du edukiontzira
5. Une horretatik aurrera, ziurtagiria esportatzeko eta erabiltzeko prest dago

➤ USB txartela / tokena

- Aurrez aurreko entrega.
Izenpe-k ziurtagiria, PINa eta desblokeatzeko kodea (PUK) emango dizkio eskatzaileari.
- Aurrez aurrekoa ez den entrega.
Izenpe-k ziurtagiria emate-eskaeran adierazitako posta-helbidera bidaliko du, bi bidalketa bereiziren gakoekin batera, eta entitate eskatzaileak hartuko ditu bere gain bidalketa-gastuak.
Izenpe-k egiaztatuko du bidalketa gako-edukitzaileari bakarrik ematen zaiola.

➤ HSM

Eskatzailea,

- Emate-eskaeran adierazitako helbide elektronikora bidalitako esteka pertsonalizatu bat jasoko duzu, eta bertara sartuko zara, ziurtagiri elektronikoa baten bidez edo zure datuak emanez, aurrez aurreko identifikazioan erregistro-entitatean lortutako CUREkin batera.
- Eskaeran emandako datuak baliozkotuko ditu, eta Izenpe-k bere HSMan emango du ziurtagiria, erabiltzaile eta pasahitz batekin batera, eta adierazitako posta-helbidera bidaliko ditu erabilera-jarraibideak.



2.5 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak 15 egun balioduneko epea izango du, ziurtagiria ematen denetik, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko eta, behar izanez gero, Izenperi funtzionamendu-akatsak jakinarazteko.

Funtzionamendu-akatsak arrazoi teknikoengatik badira bakarrik (besteak beste, ziurtagiriaren euskarriak gaizki funtzionatzeagatik, ziurtagirian akats teknikoa egiteagatik, etab.) edo ziurtagirian dauden eta Izenpe-ri aplikatu dakizkiokeen datuetan akatsak egonez gero, Izenpe-k ziurtagiria baliogabetuko du eta beste bat jaulkiko du, horren ondoriozko kostuak bere gain hartuta.

2.6 Ziurtagiria baliogabetzea

➤ Baliogabetzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke: www.izenpe.eus

➤ Ezeztatzeko eskaera

Ziurtagiria baliogabetzeko eskatu ahal izango dute,

- Ziurtagiria bere izenean daukan harpideduna.
- Ziurtagirian identifikatutako gako-edukitzailea
- Izenpe, DPCn identifikatutako kausetan.
- Bidezko interesa duen hirugarren pertsona.

➤ Baliogabetzeko prozedura

Baliogabetzearen eskatzaileak Izenpe-ren aurrean izapidetuko du baliogabetzeko eskaera.

Edozein unetan baliogabetu ahal izango da ziurtagiria, kanal hauen bidez:

- [Aurrez aurre](#), Izenperen aurrean, hitzordua eskatuz www.izenpe.eus [helbidearen bidez](#).
- [Posta bidez](#), ziurtagiria *baliogabetzeko eskaera*, notario aurrean sinatua eta legitimatua, helbide honetara bidaliz: [Izenpe, S.A.- c/ Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 -1. solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz](#)
- EU TSLn (Trusted Service List) sartutako CA batek emandako ziurtagiri kualifikatu batekin sinatutako baliogabetze-eskaera [helbidera](#) izenpe@izenpe.eus bidalita.
- On line [baliogabetzeko aplikazioan](https://servicios.izenpe.com/gestionCertificados/) sartzeko aukera:

Izenpe-k lanegun bateko eskaera jaso eta hurrengo 24 orduetan baliogabetuko du ziurtagiria, eta posta elektronikoz jakinaraziko die eskatzaileari eta harpidedunari ziurtagiriaren egoera-aldaketaren berri.

2.7 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean, berritu ahal izango da.

Izenpe-k aurreikusitako emate- eta entrega-prozeduraren arabera izapidetuko du berritze-prozesua.



3 ZENBATEKOA

Urtero argitaratzen ditu Izenpe-k bere webgunean (www.izenpe.eus) aplikatu beharreko tarifak.

Euskal Sektore Publikokoak diren entitateen kasuan, dagokion arau-esparruan zehaztutako irizpideak aplikatuko dira.

4 ZIURTAGIRIEN PROFILAK

www.izenpe.eus helbidean argitaratzen ditu Izenpe-k ziurtagirien profilak.

5 INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

Informazioaren segurtasunari eta pribatutasunari buruzko informazioa www.izenpe.eus/datos helbidean argitaratzen du Izenpe-k.

6 ALDAKETAREN KUDEAKETA

Dokumentu honetako aldaketak Izenpe-ren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.

Dokumentazio espezifikoaren bertsio eguneratuak www.izenpe.eus helbidean kontsultatu ahal izango dira.

7 GATAZKAK EBAZTEKO MEKANISMOAK

Aldeek erabaki dute haien artean sortzen den edozein gatazka Zuzenbide Kolaboratiboko prozesu baten bidez ebatziko dutela, eta, ados jarri ezean, Vitoria-Gasteizko epaitegi eta auzietara jo ahal izango da.